

LABURPENA

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2021

ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo



Lan hau Creative Commons
Aitortu 4.0 Nazioartekoa (CC BY 4.0) lizentziapean dago

Lizentziaren kopia bat ikusteko [sartu hemen](#)

ARARTEKO

Vitoria-Gasteiz, 2021

Diseinua, maketazioa eta imprimaketa: Editorial MIC

ISSN-e 2255-4912

www.ararteko.eus

AURKIBIDEA

00. Aurkezpena	2
01. Arartekoaren jarduera zenbakitan	6
02. Jarduerak	8
03. Gomendio orokorrak	16
04. Erakunde adierazpenak	18
05. Beste jarduera batzuk	20
06. Haur eta nerabeentzako bulegoa	28
Informazio interesgarria	30



Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

“Konprometitu zaitez giza eskubideen aldeko borroka noblearekin. Pertsona hobea bihurtuko duzu zeure burua, nazio handia zure herrialdea, eta bizitzeko mundu hobea.

Martin Luther King

A2021 urte berezia izan da erakundearentzat eta niretzat, ararteko bezala, izan ere, otsailean euskal Ganberako taldeek berriz hautatu ninduten bigarren eta azken agintaldirako, kontrako botorik gabe; hori bultzada handia izan da eta, aldi berean, ardura handia. Horren haritik, erakundearen buruzagitzan, nire funtsezko helburua da erakundea giza eskubideak eta herritarren askatasunak defendatzen erreferente gisa sendotzea, eta, euskal administrazio publikoen eremuan araudia gizalegez ezar dadin, pertsonen (batez ere ahulenen) egoeraren arabera interpretatuz.

Aipagarria da, halaber, Inés Ibáñez de Maeztu izendatu zutela arartekoaren ondoko, eta berak eraginkortasunez eta zintzo laguntzen didala erakunde hau bultzatzeko eta zuzentzeko zereginean.

Iaz, COVID-19aren eraginak toki handia hartu du, zorritzarrez, gure bizitzetan eta gure jardueran. Zerbitzu publikoek, batik bat osasun-zerbitzuek, berriro ere konpromiso indartua erakutsi behar izan dute pertsonak zaintzen, eta estres nahiz esfortzu ikaragarri baten mende jarraitu dute. Nire esker ona guztiei.

Arartekoaren jarduera multzoa dezente areagotu da, ia 12.500 jardueratara iritsi gara, beraz, %27 igo da 2020. urtearen aldean.

Kanpoan baliatu dugun lankidetzaren bikaina izan da. Zehazki, 229 topaketa, laneko bilera eta era guztietako ekitaldiak egin dira, eta erakundeko langileek horietan parte hartu dute.

2021ean aurkeztutako 5 azterlan eta txostenek marka hautsi dute erakunde honen bilakaeran: Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin. Diagnostikoa eta jarduteko proposamenak; Lagundu gabeko haur eta nerabe atzerritarrak babesteko zerbitzuak Europan; Administrazio digitala

eta herritarrekiko harremanak. Euskal administrazio publikoetarako aplikazioa; COVID-19aren pandemiak Euskadiko adinekoentzako egoitza-zentroetan izan duen eragina; eta Arartekoak 2021. urtean egindako gomendio eta iradokizunen bilduma eta laburpena diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren arloan.

Lan-prozesu neketsu eta luze baten ondoren, argitara eman ahal izan da Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorra, 2021eko maiatzaren 18koa. Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak.

Nazioartean, nabarmentzekoa da Arartekoak lortu duen ikusgarritasuna [Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuan](#) (IIO), [Herriaren Defentsa-erakundearen Europako Sarean](#) (ENO) eta [Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sarean](#) (ENOC). Parte hartu du nazioarteko hainbat ekitalditan, ikerketa paralelo batzuetan eta sarearen erakunde-garapenean, hurrenez hurren; horrek erakusten du erakunde hau eginkizun aktiboa eta konstruktiboa betetzen ari dela nazioarte mailan.

Urteko balantze hau egiteak ematen didan aukera baliatuta, bereziki azpimarratu nahi dut giza eskubideetan oinarritutako kultura indartu behar dela, botere publikoek nahiz herritar guztiok eskubide horiek sustatzen eta sendotzen lan egin dezagun, gure ekintzen bitartez horiek beteko direla bermatzeko une oro.

Bukatzeko, bihotzez eta behar den moduan eskertu nahi ditut gure gizartearen eta bertako kide bakoitzaren adorea eta indarra, berriz kemena eta erresilientzia erabili baitituzte iaz agertu ziren oztopoak gainditzeko; izan ere, Bob Marleyren esaldi bat neure eginez, “inork ez daki zein indartsuak garen indartsu izatea beste aukerarik geratzen ez den arte”.



XABIER MARKIEGI CANDINAREN HERIOTZA. ARARTEKO IZAN ZEN 1995 ETA 2000 ARTEAN

Xabier Markiegi 2021eko martxoaren 28an hil zen Aguadulceko (Almeria) bere etxean.

Markiegi 1995eko martxoaren 3an hartu zuen ararteko kargua.


Bere agintaldian, 2000ko irailera arte, Mercedes Agúndez Basterra abokatua izan zuen laguntzaile.

Bilbon jaioa, Filosofia eta Letretan, Psikologian eta Teologian lizentziaduna zen. Ingeniaritza-ikasketak Eere egin zituen.

Xabier Markiegiren eta Mercedes Agúndezen agintaldia Arartekoaren erakundea sendotzea izan zen, bulego horrek egindako jarduerak arlo kuantitatiboan

eta arlo kualitatiboan handituz, bai eta gizarte-ri irekitzea ere, Bilboko eta Donostiako herritarren arretarako bulegoak abian jarri.

Garai hartan, Arartekoaren bulegoak hainbat txosten berezi aurkeztu zituen Eusko Legebiltzarrean, haurren, nerabeen eta hirugarren adinekoen, buruko gaixoen eta abarren arazoei buruzkoak. Gai horiek guztiak garrantzi sozial handikoak ziren. Berezi-ki adierazgarriak dira *Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeen egoerari* buruzko ezohiko txostena edo *polizia-kidegoen aldetik etorkinek jasaten dituzten ustezko tratatu txarrei* buruzko txostena (*San Frantzisko Txostena* izenez ezagutzen dena).



MANUEL LEZERTUA ARARTEKO KARGUAZ JABETU ZEN, BERRIZ HAUTATU BAITUTE BIGARREN AGINTALDIRAKO



Manuel Lezertua Rodríguez 2021eko otsailaren 25ean jabetu zen arartekoaren karguaz, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran, hil horren 18an berriz hautatua izan ondoren, gehiengo handiz eta kontrako botorik gabe, bost urteko beste agintaldi baterako.

Bilbon jaioa, Lezertua Zuzenbidean lizentziaduna da eta legeriako master bat egin zuen Londreseko Uni-

bertsitatean. Eusko Jaurlaritzaren abokatu gisa hasi zuen bere lan-ibilbidea eta gero Estrasburgora joan zen, Giza Eskubideen Europako Auzitegiko eta Auzitegi Konstituzionaleko letradu moduan lan egitera. Europako Kontseiluaren Finantza-kriminalitatearen kontra borrokatzeko Alorreko buru izan da, eta erakunde horretako aholkulari juridiko.

Bere lehen agintaldian, arartekoak apustu irmoa egin zuen, estrategikoa, erakundeari Europako eta nazioarteko alderdia ematearen alde, baita ere beste eskubide-defendatzaile eta giza eskubideak babes-teko Europako eta nazioarteko erakunde aldeaniz-tunekin Arartekoak duen harremana indartzearen alde. Apustu horren ondorioz, harremanak areagotu ditu IOIrekin (International Ombudsman Institute), ENOrekin (EBko Ombudsmanaren Sarea), FIOrekin (Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa), IAL-Cekin (Hizkuntza Komisarioen Nazioarteko Elkarte), ENOCekin (Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sarea), baita bi aldeko harremanak ere nazioarteko beste erakunde batzuekin eta Europako hainbat herrialdeetako Ombudsmanekin.

Erakundearen buruzagitzan, hauxe du helburu nagusi: erakundea giza eskubideen eta herritarren askatasunen defentsan erreferente gisa sendotzea, eta euskal administrazio publikoen eremuan, araudia gizatasunez ezartzea, pertsonen (batez ere kalteberenen) egoeraren arabera interpretatuz.

INÉS IBÁÑEZ DE MAEZTU IZAGUIRREK ARARTEKOAREN ONDOKOAREN KARGUA HARTU ZUEN

Inés Ibáñez de Maeztu 2021eko martxoaren 16an jabetu zen arartekoaren ondokoaren karguaz, Manuel Lezertua arartekoak hala proposatuta, Eusko Legebiltzarrean burutu zen ekitaldi batean.

Zeregin horri arduraz, konpromisoz eta ilusioz egiten dio aurre, osagarritasunaren ikuspegitik bere ezagupenak eta eskarmentua erabiltzeko, betiere azken helburu hau lortzeko: Ararteko erakundearentzat arduratsu jardutea Euskadiko herritarren eskubideak defendatzen.

Ibáñez de Maeztu Geografia eta Historian lizentziaduna da eta gizarte-hezitzaile gisa jarduteko lanbide-gaikuntza du. Bere lanbide-karreraren zati bat Eusko Jaurlaritzan egin du, non Justiziako zuzendaria eta Giza Eskubideen arloko zuzendaria izan baitzen. Era berean, Bilboko talde psikosozial judizialeko hezitzaile eta bitartekari izan da, eta hezitzaile Gasteizko Adingabeen Epaitegiko talde teknikoan eta Pontevedrako Adingabeen Zentroan.



ARARTEKO ERAKUNDEAREN BULEGOAREN JARDUERA, ZENBAKITAN

2021ean zehar, **12.491 jarduketa** egin dira guztira (aurreko urtean baino %27 gehiago); horietatik, **7.578 kexei eta kontsultei** dagozkien eta 47 ofiziozko espedientei (arloka, Haur eta Nerabeentzako Bulegoari eta segurtasunari dagozkionak nabarmentzen dira).

Zuzeneko arretaren bulegoetan guztira 9.445 zerbitzu eman ditugu. Horietatik, 4.778 hiru bulegoetako batean aurrez aurre aurkezturiko kexak eta kontsultak izan dira, eta 4.667 zerbitzu telefoniko bidezko aholkularitza eta informazioari buruzkoak izan dira.

2021ean, 50 **bilera** egin ditugu gizarte-erakundeekin eta 39 administrazio desberdinekin: Eusko Jaurlaritzako sailak eta zuzendaritzak, foru aldundiak, udalak eta beste erakunde batzuk. Era berean, administrazio, gizarte-organizazio eta aholkularitzek sustaturiko estatu- eta erkidego-mailako 126 ekin-tza eta jardunalditan hartu dugu parte, eta nazioarteko beste 14tan.

2021Ean zehar, **2.131 kexa-espediente ebatzi** dira, eta **1.422 ebazpen** eman dira. Gainerako kasuetan, erabaki da kexak behingoan ez onartzea, bikoiztuta zeudelako, beste herriaren defendatzaile batzuei aurkeztu zitzaizkien-eta; ebazpen judizialaren zain zeudelako edo epai irmoa zutelako; auzibidera jo zelako, eta abar. Kexa-prozeduren batez besteko iraupena 50 egun izan da.

Arartekoari 2021ean egindako kexak eta kontsultak



Arartekoaren jarduera guztiak 2021ean

Kexak eta kontsultak	7.578
Informazioa eta aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez	4.667
Kanpoko jardueretan parte hartzea	126
Laneko bilerak gizarte erakundeekin	50
Laneko bilerak administrazioekin	39
Nazioarteko eta beste defentsa-erakunde batzuekiko jarduerak	14
Txosten bereziak eta azterlanak	5
Ikuskatzeko bisitak	5
Jendearentzat irekitako jardunaldiak	4
Gomendio orokorrak	3
Guztira	12.491

Kexa-espediente horiek aztertuta, ikusi dugu horien **%45ean** ukitutako administrazioak **oker jardun** zuela; ehuneko hori aurreko urtekoa (%43) baino handiagoa da. Kasuen %87an, ukitutako administrazioak erreklamazioa eragin zuen jarduna aldatu eta zuzendu du. Kasu gehienetan, Arartekoak ez du gomendio formala egin beharrik izan.

Kexek hizpide duten **gai-arloaren** arabera gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoei loturiko erreklamazioak pixka bat handitu direla antzeman dugu: 508 (2020an 497 izan ziren). Kexa-espediente horietatik, %90 baino gehiagok **Lanbide-aren** funtzionamendu txarrarekin zerikusia daukaten arazoak dituzte hizpide, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzearen arloan burutu dituen jarduketekin loturikoak ere.

COVID-19aren pandemia eusteko hartutako neurrien ondorioz, funtsean areagotu egin dira herritarren osasunarekin loturiko kexak. Izapideturiko kexa-espedienteen ia **%47ak** lotura dute **gizarte-eskubideekin (osasuna, gizarteratzea, etxebizitza, hezkuntza eta abar)**.

Halaber, kexetako asko **arreta publikoko kolektibo**ei buruzkoak dira. Espediente horietako askok (gizarteratze arlokoak barne) pertsona guztien **berdintasun erreala eta eraginkorra** bermatzeko politika publikoekin zerikusia dute, eta horien helburua da emakumeek, adinekoek, haur eta nerabeek, ezgaitasunen bat duten pertsonak, LGTB kolektiboak, immigranteek, ijitoek eta abarrek eskubide hori baliatzeko dituzten eragozpenak desagerraraztea.


Administrazio bakoitzari eragiten dioten espedienteen proportzioari dagokionez, aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza izan da idatzizko erreklamazio gehien jaso dituen erakundea 2021ean (ia %53), eta euskal udalen jarduketei buruzko kexak aldaketa handirik gabe mantentzen dira (%34). %9 inguruk foru aldundiei eragiten die.

Nolanahi ere, espedienteetan ukitutako administrazioen jardunak ikertzeak ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, baizik eta erreklamazioak beren jarduketaren bat izan duela hipzide.

ASEBETETZE-MAILA

Duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko biderei ekin genion, Arartekoaren esku-hartzea eskatu duten pertsonen iritzia ezagutzeko eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzeko. Horregatik, kexa-espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini gabe, galdera batzuei erantzuteko eskatuz. Horrela, emandako zerbitzua-aren gainean egiten duen balorazioaren berri izan dezakegu.

Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera



Eusko Jaurlaritza	%52,60
Tokiko administrazioa	%34,12
Foru administrazioa	%8,69
Erakunde publikoak	%3,78
Estatuko administrazioa	%0,57
Justizia	%0,24

Emaitzak baloratzeko orduan, kontuan izan behar dugu, 2021ean izapidetzen amaitu dugun kexa gutzietatik, soilik kasuen %53an jo dela ukitutako administrazioak oker jardun duela.

Arartekoaren langileek eskainitako arreta nola baloratuko luketen galdetuta, herritarren **%74ak** uste du **“arreta ona edo oso ona”** izan dela.

Arartekoaren esku-hartzeari dagokionez (eskuragarritasuna, erakutsitako interesa, egindako izapideak), ia %66ak baino gehiagok uste du oso positiboa edo positiboa izan dela.


la **%78k Arartekora jotzeko gomendioa** emango luke administrazioarekin edozein arazo izanez gero.

Gainera, azken urteotan Arartekoaren bi tresna giltzarriren inguruan galdetu dugu: **web orria**, gure zerbitzuei buruzko informaziorako eta herritarreki-ko elkarreraginerako oinarritzko elementu gisa (erabiltzaileen %70ak ezagutzen du), eta Arartekoaren **zerbitzuen karta**, kalitateari buruzko konpromiso guztiak eta erabiltzaileek erakundearekiko dituzten eskubideak biltzen dituen, bai eta horiek erabiltzeko modua ere (inkesta bete duten pertsonen %47ak ezagutzen du). Inkestaren emaitzetan oso positiboki nabarmentzen da Arartekoan kudeaketak egiteko erraztasuna.

Emaitza hauekin ondoriozta dezakegu Arartekoaren zuzeneko esku-hartzea (alegia, erakunde honen jardueraren eta baliabide pertsonalen mende dagoena) dakarten arloei buruzko iritzia aztertzen direnean, positiboa dela egindako lanaren inguruko balorazioa.

Azkenaldian, era berean, Arartekoak ematen dituen zerbitzuei buruzko iradokizunak edo iritzia aurkeztea bultzatu da eta Zerbitzuen kartaren erreforman, Arartekoaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta datu pertsonalak babestearekin loturiko eskubideak baliatzea txertatu dira. 2021ean 27 eskaera eta kexa aurkeztu ziren.

Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekora joateko gomendatuko zenioke?



OSAKIDETZAK PERTSONA BATEN GARAPEN PROFESIONALAREN MAILA AITORTU DU, ARARTEKOAK HALA GOMENDATU ONDOREN



Pertsona batek Arartekoari adierazi zion ez zegoela ados Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren jarduerarekin, 2011ko ekitaldiko garapen profesionalaren maila aitortzeko ohiko deialdiari zegokionez.

2013an plaza bat lortu zuen Kantabriako Osasun Zerbitzuan eta geroxeago Osakidetzara itzuli zen, zerbitzu-eginkizunean. Harrezkero etengabe lan egin du erakunde horretan, bai zerbitzu-eginkizunean, bai langile finko gisa, izan ere, 2019ko otsailean lanpostu bat eskuratu zuen, lekuz aldatzeko lehiaketa batean parte hartu ostean.

2014an, Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, deialdia etetea erabaki zen, baina ordura arte egindako jarduera guztiak baliozkoak izaten jarraituko zutela ezarri zen. Jarduera haiek etendako administrazio-espediterearen barruan geratuko ziren, harik eta egoera ekonomikoak ahalbidetu arte eta etenaldia amaitzea erabaki ahal izan arte.

Etenaldi hura indarrean zegoen bitartean, kexagileak Kantabriako Osasun Zerbitzuak garapen profesionala aitortzeko egindako deialdian parte hartu zuen eta I. Maila aitortzea lortu zuen. Aitorpen hura Osakidetzak homologatu zuen.

Etenaldia amaitu eta prozesuak aurrera jarraitu zuten, deialdian lortutako mailen esleipena argitaratu zen behin-behinean, baina kexagilea ez zen agertzen, kanpoan utzi baitzuten, deialdiko ebazpenean ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Arartekoa ez zetorren bat irizpide horrekin eta Osakidetzari eskatu zion beharrezko neurriak har zitzala 2011ko deialdian aurkeztutako garapen profesionala aitortzeko eskaera izapidetu zedin. Osakidetzak onartu egin du Arartekoaren gomendioa, eta esker-tzen diogu bere lankidetzara.

LEZOKO UDALAK ARARTEKOAREN GOMENDIO BAT ONARTU DU, HIRIGINTZAKO LIZENTZIARIK GABE EGIN ZEN LAN BATEN GAINEKO SALAKETARI ERANTZUTEKO

Pertsona batek Arartekora jo zuen, izan ere, Lezoko baserri batean udal lizentziarik gabe teilape bat jarri zutenez gero, salaketa egin zion Lezoko Udalari, hirigintzako legezkotasuna berrezar zedin, baina Lezoko Udalak ez zion erantzun.

Kexan adierazitakoaren arabera, Lezoko Udalak ebazpen baten bidez adierazi zuen baserri hartan teilape bat eraikitzeke lanak ez zeukala beharrezko lizentziarik eta bateraezina zela Lezoko Hiri Antolamendurako indarreko Plan Orokorrearekin. Ebazpen hartan teilapea eraisteko agindua ere eman zen, ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean.

Geroago, kexagileak udalari informazioa eskatu zion eraistea gauzatzeko hartu ziren neurrien gainean, baina ez zuen udalaren erantzunik jaso. Horrexegatik jo zuen Arartekora.

Kexagaia eta Lezoko Udalak egindako jarduerak aztertu ondoren, Arartekoak gomendatu zion ahalik eta lasterren ebatz zezala, berriaz eta arrazoi bidez, egindako salaketa hura, teilapea eraisteko agindu zuen udal eskaera betearaz zedin.

Udalak onartu egin du Arartekoaren gomendioa, eta adierazi du hirigintza arloko legezkotasuna berrezartzea bermatu behar dela.





EUSKO JAURLARITZAK BEHARREZKO NEURRIAK HARTUKO DITU LABI-REN BATZORDE TEKNIKOAN EMAKUMEAK GUTXIENEZ KIDEEEN %40 IZAN DAITEZEN

Horixe gomendatu zion Arartekoak, herritar batek erakunde honi esku hartzeko galdegin ostean, ez baitzegoen konforme Euskadiko Larrialdiei Aurregiteko Bidearen (LABI) Batzorde Teknikoa osatzen duten pertsonen izendapenarekin, izan ere, bere ustez, ez zetorren bat emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuaren printzipioarekin.

Herritar batek esku hartzeko galdegin zion Arartekoari, ez baitzegoen konforme Euskadiko Larrialdiei Aurregiteko Bidearen (LABI) Batzorde Teknikoa osatzen duten pertsonen izendapenarekin, izan ere, bere ustez, ez zetorren bat emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuaren printzipioarekin.

Kexagileak Eusko Jaurlaritzara jo zuen, Zuzenean zerbitzua erabiliz, aipaturiko organo horretan bi sexueta-ko kideen ordezkariak orekatuta ez egoteagatik kezkatuta zegoela adierazteko. Erantzunean bakar-bakarrik adierazi zioten eskertzen zituztela bere iruzkinak eta iradokizunak, eta kontuan hartuko zituztela, beste ezer zehaztu gabe.

Informazioa eskatu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak bere erantzunean Arartekoari azaldu zion zer-nolako baldintzek zehazten duten batzorde horren osaera. Baldintza horien artean, nabarmentzekoa da beste organo batzuetako titularrek osatzen dutela, epidemiologiaren lanbide-eremuaren barruan, eta eremu berezia dela, "osaera eta ezaugarri pro-

pioak dituen, eta ez dela gizonen eta emakumeen arteko orekaren araberakoa". Era berean, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuta lortzeko hartu diren azken neurriak zehaztu ziren erantzunean.

Arartekoak onartu zuen du Eusko Jaurlaritzak ahal-egin handia egin zuela osasun-larrialdia indarrean zegoenean eta neurriak hartu zituela LABIn emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuta hurbiltzeko, nahiz eta erakunde hori eratzeak zailtasun objektiboak eragin dituen, arlo horretan espezializatutako eskumenak dituzten beste erakunde batzuetako pertsonak osatzen dutelako.

Hala ere, gure iritziz, jarduteko tarte bat dago pertsona horiek izendatzeko; horregatik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion hasitako ahalegina egiten jarrai dezala, ordezkariak orekatuaren printzipioa benetan gauzatu arte, baita ere LABIn Batzorde Zientifiko Teknikoaren edo geroan ezar daitezkeen izaera bereko beste instantzia batzuen osaeran.

Horregatik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak gomendatu zion ziurta dezala, etorkizunean, LABIn Batzorde Zientifiko Teknikoa edo etorkizunean ezar daitezkeen izaera bereko beste instantzia batzuen osaera, gutxienez, bi sexueta-ko kideen %40a iritsiko dela. Eta onartu egin du gomendioa.

LEIOAKO UDALAK AINTZAT HARTUKO DU IGERILEKUETARA SARTZEKO PROZEDURA BAT JARTZEA, ABONATUENTZAT NAHIZ ERABILTZAILEENTZAT

Halaxe gomendatu zion Arartekoak herritar baten kexa aztertu ondoren, hura ez baitzegoen konforme Leioako Udalaren erabakiarekin, alegia, udako udal igerilekuetan sartzan ez uztea udal kirol instalazioetako abonatuak ez direnei.

Bere esanean, bigarren urtez jarraian, Leioako bizilagunak ezin dira udako igerilekuetara sartu, instalazio horietako abonatuak ez badira (abonatuak aldeztu aurretik hitzordua eskatuta sartzan dira), ezta tokia egonda ere. Kexagileak ez du abonurik nahi, kostua gehiegizkoa iruditzen zaiolako eman diezaiokkeen erabilerarako.

Udalak osasun-irizpideak azaldu zituen neurri hori justifikatzeko: *“Debido a la situación sanitaria existente nos hemos visto en la obligación de mantener una serie de normas y controles con el objetivo del correcto funcionamiento de la instalación, además de resguardar la salud de todas nuestras y nuestros usuarios”.*

Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko erregelamenduan, udalaren kirol instalazioak baliatzeko eskubidea aitortzen da, abonatu izan nahiz erabiltzaile izan (abonatu gabea).

Nahiz eta erregelamendu horretan maila goreneko arau batzuek eragin duten (COVIDak sortutako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak arautzen dituztenak), arau horiek ez dute inolako murrizketarik ezartzen instalazioen erabiltzaile motari dagokionez.

2020an egin zuen bezala, izurria hasi zenetik urtebete baino gehiago igaro ondoren, Leioako Udalak ez du aurreikusi erabiltzaileen eskubideetarako hain murriztailea ez den beste aukerarik.

Arartekoaren ustez, badira ezarritakoa bezain murriztaileak ez diren beste konponbide batzuk, adibidez, aurretiazko hitzordua, izan ere, horren bitartez, behar bezala kontrola daiteke instalazioetarako sarbidea eta identifika daitezke erabiltzaileak.

Horregatik, Arartekoak Leioako Udalari iradokitzen zion igerilekuetara sartzeko prozedura bat antola dezala, bai abonatuentzat bai erabiltzaileentzat, denen osasuna bermatuz instalazio horietan inguru segurua eskaintzeko eta, era berean, instalazio horien erabilera arautzen duen erregelamendua bete ahal izateko.

Udalak Arartekoari jakinarazi dio kirol instalazioen araudia berritzen diharduela eta berritze horretan kontuan hartuko direla hainbat gai, besteak beste, abonatuentzako eta abonatuak ez direnentzako kirol eskaintza.

ARARTEKOAK ESKATU DU BERRIZ AZTER DADILA EMAKUME BATI DSBE BAT AMAITZEKO ERABAKIA, BERE SENARRA SASOIKAKO LANGILEA BAITA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPO ATERATZEN BAITA LAN EGITERA

2013. urteaz geroztik –orduan aitortu baitzioten DSBEa jasotzeko eskubidea kexagileak bizikidetza-unitate bat osatzen du bere senarrarekin eta bien adin txikiko alabarekin. Senarra sasoiakako langilea denez gero, Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) ateratzen da lan egitera, bai udan, fruta biltzeko, eta bai noiz-bait neguan ere, oliba biltzeko.

Arartekoak informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren orduko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari; gaur egun, Lan eta Enplegu Saila deritzo.

Lanbidek txosten baten bidez erantzun zuen, eta honako hau azaldu zuen: *“diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularraren ezkontideak 12 hilabete baino gehiagoko lan-aldiak lotu ditu EAETik kanpo. Hori dela eta, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloan (2017) dituen irizpideen 4. zenbakia jarraikiz, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zaio, bikoitea ezin baita egon lan-arrazoiengatik urtebete baino gehiago bananduta eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen”.*

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuan ez da espresuki aipatzen lanagatik banandutako aldiak batu daitezkeenik.

Horrela, egiaztatu da Lanbidek, bere interpretazioaren bitartez, DSBEa galtzarekin zigortu duela bizikidetza-unitate bat, non bere kideetako batek diru-sarrera propioak lortzeko ahaleginak egiten dituen.

Horrez gain, ezin da alde batera utzi bizikidetza-unitate horretan adin txikiko bat bizi dela, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak zertzelada hori behar bezala haztatu behar zuela bere erabakia hartu baino lehen.



BILBOKO UDALAK ONARTU DU HERRITAR BAT PRESTAZIOAK ESKATZEKO BEHARREZKOA DEN ANTZINATASUNAREKIN ERROLDATUTA DAGOELA



Herritar batek Arartekora jo zuen, Bilboko erroldan zuen egoeragatik. Aurretik, nazioarteko babeska eskatu zuen eta udal erroldan izena emanda egon zen. 2019ko urrian, Barne Ministerioak ukatu egin zion nazioarteko babesaren eskaera, eta hilabete geroago pasaporte emateko eskaera egin zuen Kongoko Errepublika Demokratikoko Enbaxadan.

2020ko ekainean helbide-aldaketa galdegin zuen Bilboko Udalaren Erregistroan, eta adierazi zioten pasaporte aurkeztu behar zuela, identifikatzeko agiri gisa, erroldan inskribatzeko eskaeran.

Alegatu zuenez, nazioarteko babesaren eskaera ukatu ziotenetik beharrezko ahalegin guztiak egin zituen Kongoko Errepublika Demokratikoak pasaportea eman ziezaión. Pandemiaren ondorioz, alarma-egoera adierazi zen eta horrek eten egin zuen Enbaxadaren aurrez aurreko arreta, eta Enbaxadak Espainiako Kongoar Komunitateari jakinarazi zion pasaportea emateko datu biometrikoen bilketa etenda egongo zela beste agindu bat eman arte.

Bilboko Udalak ukatu egin zion udal erroldan inskribatzeko eskaera, identifikatzeko agiri nahikoak eta indarrekoak ez emateagatik. Erroldako inskripzioa eskatzera joan zen berriro, eta Kongoko Errepublika

Demokratikoak Espainian duen Enbaxadan pasaportea eskatu zuela ziurtatzen zuen agiria erantsi zuen.

Une hartan jakinarazi zioten erroldan baja emanda zegoela. Orduan, udalari posta bat igorri zion, agiri jakin batzuk erantsi zituen eta eskatu zion espediente sar zitzala eta berriaz azter zedila udal erroldan eman zioten baja. Agiriak honako hauek ziren: bere egoera azaltzeko idazki bat, erroldatzeko baimena, pasaportearen ziurtagiria eta Enbaxadaren jakinarazpena.

2021eko otsailean pasaporte lortu zuen eta orain bizi den udalerriko erroldan izena eman zuen. Hala ere, udal erroldan urtebeteko hutsunea egoteak arazoak sortzen dizkio, izan ere, zerbitzu eta prestazio jakin batzuetarako sarbidea arautzen duen araudiak eskatzen du aldeaz aurretik erroldatze-aldi jarraitua egiazta dadila.

Arartekoaren ustez, ez zitzaion ukatu behar udal erroldan helbide aldaketa egiteko eskaera, eta Bilboko Udalari gomendatu zion berriaz zezala eskaera.

Udalak adierazi digu helbide-aldaketa erregistratuko duela, eta erroldatzea 2018ko urritik aurrera onartuko duela. Horri esker, herritar horrek behar besteko antzintasuna izango du erroldan, eta benetako bizilekua egiaztatu ahal izango du prestazioak eskatzeko.

ARARTEKOAK BILBOKO UDALARI GOMENDATU DIO EBATZ DEZALA TAO-REN ARAUDIA HAUSTEAGATIK JARRITAKO SALAKETA BAT EZEZTATZEKO ORDAINDU ZEN DIRU-KOPURUA ITZULTZEKO ESKAERA



Herritar batek esku hartzeko galdegin zion Arartekoari, Bilboko Udalak 30 euro itzul ziezazkion, izan ere, adierazi zuenez, kopuru hura akats baten ondorioz ordaindu zuen, TAOko zaindari batek bere ibilgailuaren kontra jarritako salaketa baliogabetzeko. Arautuko eremuan aparkatzeko gaitzen duen titulurik ez zuelako jarri zioten salaketa.

Kexagilearen esanean, ibilgailuak bazuen aparkatzeko gaitzen duen titulua, "BilbaoPark" aplikazioaren bidez lortu baitzuen, zaindariak salaketa jarri zuen ordu berean.

Adierazi zuenez, salaketaren berri izan zuenean, TAOren arreta-telefonora deitu zuen. Telefonoz artatu zuen pertsonak esan zion Udalari jakinaraziko ziola gorabehera hura, artxiba zezan, jarduera hura eta aparkatzeko baimena ordu berean egin zirela egiaztatu ondoren.

Geroago, aplikazioaren historikoa kontsultatzean, konturatu zen nahi gabe egin zuela klik salaketa ezeztatzeiko aukeran, eta automatikoki aktibatuta zuela aukera hura, nahi gabe.

Herritarrak eman zigun informazioaren arabera, salaketa ezeztatzeagatik nahi gabe ordaindu zuen kopurua itzul ziezaioten eskatu zuen, eta salaketa eta "BilbaoPark" aplikazioan lortutako aparkatzeko baimena aurkeztu zituen, baina Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak jakinarazi zion, azalpen gehiagorik eman gabe, zerbitzu juridikoen ustez ezin zela ezeztatu salaketa baten baliogabetzea.

Informazioa eskatu ondoren, Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak Arartekoari adierazi zion ez zela bidezkoa dirua itzultzea, bada, TAO sistemaren datu-basean idatziz jasota agertzen zenez, salaketa hura "BilbaoPark" aplikazioan horretarako gaitzen duen titulua lortu baino lehenagokoa zen.

Hala ere, udalak ez du jakinarazi zer ordutan jarri zen salaketa, TAO sistemaren datu-basearen arabera, eta zer ordutan lortu zen aparkatzeko baimena. Era berean, ez du argitu datu-basean nola ager daitekeen kexagilearen agiriek gezurtatzen duten informazio bat. Ez du azaldu zergatik uste duen salaketa aparkatzeko baimena lortu baino lehenago jarri zela, aipatutako agiriak kontuan hartuta.

Horregatik, Arartekoak Bilboko Udalari gomendatu dio ebatz dezala TAOren araudia hausteagatik jarritako salaketa ezeztatzeiko ordaindu zen diru-kopurua itzultzeko eskaera, eta kexagileari itzul diezaiola kopuru hori, baita berandutze-interesak ere.

ARARTEKOAK ESKATU DU ETXEBIZITZA BAT BIZILEKU KOLEKTIBOTZAT JO DADILA, BALDIN ETA BEHAR BEZALA ERREGISTRATUTAKO GIZARTE-ERAKUNDE BATEK KUDEATZEN DUEN ESKU-HARTZE SOZIALEKO PROGRAMA BATEAN SARTUTA BADAGO

Horrela, bertan bizi diren bizikidetza-unitate guztiek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jaso ahal izango dituzte

Araba eta Bizkaiko zenbait elkartek Arartekoari jakinarazi ziotenez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzeko eskubidea ukatzen edo amaitzen ari da, baldin eta, eskaera egiten den egunean, bizileku berean DSBEa onartuta duten bi bizikidetza-unitate badaude. Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta arautzeko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak 10.2 artikuluan ezarritakoan oinarrituta egiten du hori.

Elkarteek ziotenez, DSBE prestazioa behar duten pertsona kalteberenek ezinbestean ostatueta edo pentsioetan bizi behar dute, edo, ahal izanez gero, partekatutako logela batean, profesionalen ikuskatzerik edo laguntzarik gabe.

Elkarte horiek gizarteratzeko programak kudeatzen dituzte eta zenbait etxebizitza izaten dituzte, programetan parte hartzen duten pertsonak haietan bizi daitezten. Erabiltzaileek gizarte-bazterketa eta bizileku-arazo larriak pairatzen dituzte eta gizarteratzeko eta laneratzeko esku-hartze sozialeko programa batean sartuta daude.

Lanbideren iritziz, beren bizilekua ez da etxebizitza kolektibotzat jotzen, ez baititu betetzen dekretu horretan ezarritako baldintzetatik bakar bat ere. Etxebizitza kolektibotzat jo dadin, foru aldundiek baimena eman behar dute; hala ere, aldundiek ez daukate sektoreko araudirik baimen hori emateko.

Arartekoaren ustez, araudi hori egiten ez den bitartean, ezin zaie DSBEa ukatu edo amaitu gizarteratzera bideratutako programa baten erabiltzaileei.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatu dio etxebizitza bat bizileku kolektibotzat jo dadila, baldin eta behar bezala erregistratutako gizarte-erakunde batek kudeatzen duen esku-hartze sozialeko programa batean sartuta badago, eta bertan bizi diren bizikidetza-unitate guztiek aukera izan dezatela diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko.

Orobat, eskatu dio alda dezala bizikidetza-esparru berean gehienez ere diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi unitate onuradun izateari buruzko gaur egungo muga, izan ere, bere iritzian, oraingo osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisialdian, abian jarri behar dira ostatu egokia bermatzeko gizarte-neurri guztiak.



BIZILAGUN BERRIZ HASIKO DA AURREZ AURREKO ZEBITZUA EGITEN, ARARTEKOAK GOMENDATU ZION BEZALA

Horrela, herritarrek zerbitzu horren aurrez aurreko edo telefonozko laguntza aukeratu ahal izango dute. Zerbitzu horren bitartez, zenbait tresna eskaintzen dira, bizilagunen komunitateetan edo etxebizitza edo lonja baten alokatzailerean eta maizterren arteko harremanetan sortzen diren desadostasunak konpontzeko.

Uztailaren bukaeran herritar batek esku hartzeko galdegin zion Arartekoari, izan ere, Bizilagun zerbitzuak telefonozko zerbitzua bakarrik ematen zuen eta alde zurretik hitzordua eskatu beharra zegoen Internet bidez edo 012 telefonoan. Behin hitzordua hartuta, zerbitzuak telefonoz deitzen zuen erreserbatutako egunean eta orduan.

Kexagileak adierazi zuenez, hiru bider saiatu zen bere arazoa telefonoz azaltzen, baina ez zuen egiterik izan, ezinbestean aurretiazko hitzordu telematikoa eskatzera bidaltzen baitzuten.

Gainera, ezarrita dagoen sistemak ez zituen kontuan hartzen telefonorik ez daukaten pertsonak, eta kexagileak herritar gisa dituen eskubideekin bat datorren zerbitzua eskatzen du.

Osasun-larrialdiko egoera adierazi ostean, administrazio gehienek funtsezkoak ez ziren beren bulegoak eta zerbitzuak itxi zituzten, eta, hortaz, herritarrekiko harremana telefono bidez edo telematikoki burutzen zen.

Konfinamendu-aldia bukatu ondoren, administrazio asko, pixkanaka, aurrez aurreko arreta ematen hasi zen berriro, COVID-19ari aurre egiteko planak onartu ziren eta, aldi berean, zenbaitetan, aurrez aurreko lana eta urrutiko lana uztartu ziren.

Gertatzen ari den digitalizazioaren ondorioz administrazioan izandako eraldaketak barne-eraginkortasuna irabazteko balio behar du, baina, horrez gain, baita herritarrei zerbitzu hobek emateko ere; haatik, egintzek agerian jartzen dute, izatez, harreman telematikoko edo telefono bidezkoak ezartzeko joera dagoela, eta aurrez aurreko arreta bigarren mailakoa dela edo, zenbaitetan, halakorik ez dagoela.

Arartekoak administrazio digitalaz oraintsu prestatu duen azterlanean adierazten denez, "Administrazio elektronikoen tresnen ezarketaren aurrerapena finkatu eta areagotu behar den arren, ezinbestekoa da herritarrekiko kanal presentziala eta fisikoki eta ez bakarrik birtualki elkarriz egiteko eta harremanetan jartzeko aukera beti irekita uztea.

ARARTEKOAK URIBARRI GANBOAKO ADMINISTRAZIO BATZARRARI UR TASAREN ORDAINAGIRIAK KONTSUMOEN IRAKURKETEN ARABERA IGORTZEKO GOMENDATZEN DIO

Herritar batek Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak ur-kontsumoa fakturatzeko erabiltzen zuen sistemarekin ados ez zegoela adierazi zion Arartekoari. Alegatu zuen bere etxebizitzak ur-kontagailu individual bat zuela, eta tokiko erakunde txiki horrek, bere garaian, ordenantza fiskal bat onartu zuela edateko uraren etxez etxeko horniduragatik tasa kontagailuak erregistratzen duen kontsumoaren arabera arautze aldera.

Hala ere, azaldu zuenez, Administrazio Batzarrak beste sistema bat aplikatzen zuen, ordenantza fiskalaren aurreikuspenak alde batera utzita, kontagailu bakoitzeko zenbateko finko bat eta beste aldagarri bat oinarri hartuta, Administrazio Batzarrak zerbitzu hori emateko egin zituen gastu guztiak –zati berdinetan, abonatu guztien artean– hainbanatzearen ondorioz.

Adierazi zuenez, 2018ko kontsumoari dagokionez (tasa kobratzeko igorri zen azken ekitaldia), Administrazio Batzarrak kontagailu bakoitzeko urteko 50 euroko kuota finkoa ordaintzeko eskatu zien etxeko hornidurako higiezinaren titular guztiei. Kopuru hori 80 eurokoa izan zen urtean, herrian instalatuta zeuden 4 kontagailu industrialen kasuan.

Kuota finko horri bigarren zenbateko bat gehitu zitzaion; zenbateko hori kalkulatzeko, Administrazio Batzarrak 2018an zerbitzua eman ahal izateko bere gain hartu zituen gainerako kostu guztiak (hornidura, arazketa, elektrizitatea eta abar) herrian instalatutako 64 ur-kontagailuen artean zatitu ziren, kostu horiek ez baitziren urteko kuota finkoa ordainduta bildu.

Interesdunak zalantzan jarri zuen kostuen eragin-sistema hori, kontsumo-tipologia hagitik desberdinen tasak parekatzen zituelako, eta hori, argi eta garbi, etxeko kontsumoa eta neurrizko kontsumoa egiten zuten erabiltzaileen kalterako sistema zen; izan ere, herrian, familia bakarreko etxebizitez gain, bi ostalaritza-jarduera zeuden, klub nautiko bat edo zenbait igerileku partikular.

Arartekoaren aburuz, edateko uraren hornidura-zerbitzu bati dagokionez abonatu dagoen pertsona bakoitzak kontsumitzen duen ur-bolumen zehatza (bere kontagailuan erregistratzen den ur-bolumena) alde batera uzten duen kostuen banaketa-irizpidea aplikatzea justizia materialaren printzipioaren aurkakoa izango litzateke, eta, halaber, legezketasun-, berdintasun-, baliokidetasun- eta gaitasun ekonomikoaren arloko printzipioen aurkakoa, bai eta ur-baliabidearen erabilera iraunkorraren aurkakoa ere.

OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren keak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, **bere ekimenez**, hainbat gai ikertzeari ekin dio: Batzuetan, euskal herri-administrazioaren batean jardun irregularrak izan daitezkeela irizten da; beste batzuetan, berriz, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera dago.

2021ean, Arartekoak ofiziozko espediente bat hasi zuen, jakin baitzuen Lanbidek JAR-DBE-023 Jarraibidea eman zuela: *“Adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzaren unitateentzat 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikulua ezarritako gehieneko denbora zenbatzen hasteko”*. Jarraibide hori 2020ko abenduan jarri zen indarrean.

Geroagoko kontsultei eta kexei begira jarraibide horrek zer aplikazio izango duen argitzeko, Arartekoak informazio-eskaera egin zion Lanbideri. Araudiak aurreikuspen du adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzaren unitateak, beste senide batzuen (guraso, aiton-amonak, anai-arreba, e.a.) bizilekuan bizi badira haiengandik bereizitako bizikidetzaren unitatea (BU) osatzen dutela diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) aitortzeko orduan, eta ez dio ezartzen iraupen-mugarik aurreikuspen horri.

Adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzaren unitateak oso kalteberak direlako aitortzen zaie beste bizikideengandik independentea den bizikidetzaren unitatearen izaera eta, horren bitartez, unitate horien autonomia bermatu nahi da, baita ere, arrazoi sozioekonomikoengatik, beste senide batzuen bizilekuan bizitzen jarri behar dutenean.

Orain arte aurreikuspen horrek batez ere adingabeak ardurapean dituzten guraso bakarreko (ama) familiei egiten zien mesede.

Legea garatzen duen dekretuak bi urtera mugatu zuen bizikidetzaren unitate berezi horien iraupena.

Muga hori jada aztertu zuen erakunde honek txosten honetan: ***Diagnostiko txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017.***

Orduan ohartarazi zen legearen arau-garapenak mugatu egin zuela bizikidetzaren unitate berezien iraupena; horregatik, Arartekoak proposatu zuen aukera honen inguruan gogoeta egitea: ohiz kanpoko kasuetan gutxienez, epe hori luzatu ahal izatea, gizarte-zerbitzuekin koordinatuta, emandako epea igaro baino lehen bizilekua aldatzea errazteko.

Epea ez da luzatu, ordea. Aitzitik, oraingo jarraibideak badirudi are gehiago mugatzen duela adingabeak ardurapean dituen bizikidetzaren unitate bereziaren iraupena, eta administrazioarekiko auzien epaitegien zenbait epaitan babestuta, hauxe zehaztu du *“ad ingabeak ardurapean dituen BU bereziaren iraupena ezingo da 24 hilabetetik gorakoa izan, haurra jaiotzen edo adoptatzen denetik zenbatzen hasita”*.

Jarraibide hori kasu honetan bakarrik ezar daitezkeela uler daiteke: adingabeak ardurapean dituzten pertsonak, haurrak jaiotzen baino lehen senide baten bizilekuan bizi zirenak eta haurra jaiotzen edo adoptatzen denetik 24 hilabete izango zituztenak BU berezitat har zituztenak.

Alabaina, jarraibidea nola idatzita dagoen ikusita, Arartekoari kezka sortzen dio ez ote zaien ezarritako adingabeak ardurapean dituzten BU guztiei eta, horrela, adibidez, 7 eta 9 urteko bi seme-alaba dituen pertsona batek, modu independentean bizi zenak eta krisiagatik gurasoen etxera itzuli denak, DSBE bat eskatu eta ezezkia jasotzea.



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOETAN HEGAZTI-FAUNA ELEKTROKUTA EZ DADIN ETA HAREN AURKA TALKA EGIN EZ DEZAN INGURUMEN-KONTROLA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Gomendio hori Espainiako Ornitologia Elkarteak (Sociedad Española de Ornitología, SEO/BirdLife) azal dutako kexa batek eragin zuen. Gomendio orokor horretan baloratu da gaur egun zer egoeratan dagoen hegazti-faunaren ingurumen-babesa, Euskal Herrian linea elektrikoek sortutako arriskuen ondorioz.

Esate baterako, azpimarragarria da Euskadin elektrokuzioa edo talka jasandako hegazti-faunaren kasu gutxi antzeman direla, beste lurralde batzuen aldean. Alabaina, kaltetutako espezieen garrantzia ere nabarmendu da, horietako batzuk babes berezia behar dutenak baitira, edo, areago, desagertzeko arriskuan daudenak.

Nolanahi ere, Euskadin pixkanaka aurrera egiten ari dira eremu babestuetan linea elektrikoak egokitze-ko abiarazi ziren neurriak. Gainera, botere publikoek zenbait betebeharrak juridiko dituzte, espezie migratzaileak babesteko nazioarteko hitzarmenen ondorioz.

Arartekoak neurri batzuk gomendatu ditu, Euskal Herrian hegaztiak linea elektrikoekin elektrokutatzen badira edo haiekin talka egiten badute, gertakariak hobeto ikuskatu eta kontrola daitezten.



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ANTZEMANDAKO BASO-SUTEETAN IKERKETA BULTZATZEKO ETA ZIGORTZEKO AHALA ERABILTZEKO PROPOSAMENAK



Arartekoak hedabideen eta gizarte-sareen bitartez jakin zuen gizartearen kezka nabari zela Euskal Autonomia Erkidegoan baso-sute handi samar batzuk izan zirelako, ustez, nahita eragindakoak, eta nekez argitu zitekeela norik eragin zituen, kasu bakoitzean zegokion erantzukizuna eskatzeko. Hori jakin ondoren hasi zuen ofiziozko jardura.

Arartekoak **zenbait neurri** gomendatu ditu, **baso-suteak hobeto ikertu eta kontrolatzeko**.

Proposamen horien artean, hainbat gomendio egin ditu baso-suteei buruzko ingurumen-informazioa errazago eskuratzeko, herritarren lankidetzak sustatzeko eta ingurumen arloko salatzaila babesteko, baso-suteak gertatzen direnean.

Orobat, gomendio batzuk egin ditu suteen kontra babesteko araudia hobeto betearaz dadin, baso-suteen sorburuak ikuskatzeko eta ikertzeko ahalak erabiliz. Arartekoak foru-administrazio eskudunei gogorarazi die ofizioz bultzatu behar dituztela baso-suteak ikuskatzeko neurriak eta ikertzeko eginbideak, eta suteak ikuskatzeaz arduraz den basozaintzak berariazko prestakuntza eta balia-bide material nahikoak izan behar dituela.

Arartekoak gomendio orokor horretan adierazi du foru-administrazioek zigortzeko ahala erabili behar dutela, suteak ingurumenean sortutako kalteak konpondu behar dituztela eta Ministerio Fiskalari bidali behar dizkiotela baso-suteei buruzko espedienteak.

Gainera, Arartekoak azpimarratu du garrantzitsua dela koordinazio-mekanismoak bultzatzea baso-suteen ingurumen-zaintzan. Horren haritik, Arartekoak aitortzen du Ingurumen arloko Fiskaltzak baso-suteak prebenitzeko eta kontrolatzeko orain arte egin duen lana. Komeni da ohartaraztea zorrozkiki Fiskaltzak eta Epaitegiak dutela arau-hauste penalak ikertzeko eta kalifikatzeko eskumena, eta baztertu egin behar dela gai horren inguruko edozein interferentzia.



EUSKADIN HAUR ETA NERABEEN KONTRAKO SEXU-ABUSUA ETA SEXU-ESPLOTAZIOA GERTATZEN DIRENEAN JARDUTEKO JARRAIBIDEAK

Arartekoaren gomendio orokor honen bidez hobetu egin nahi da txar larri horiek jasan dituzten haur eta nerabeen kasuak antzemateko lana, baita horiekiko esku-hartzea eta tratamendua ere.

Jarduteko jarraibideen proposamenak **helburu nagusi bat** azaldu du: **esku-hartze eraginkorra ziurtatzea** haurren aurkako sexu-abusua edo sexu-esplotazioa gertatzen direnean, kasu guztietan bermatuz biktima babes-tuko dutela eta egindako kaltea konponduko dela.

Bi ideia eragingarri hauek egiten diete tira gainontzeko elementuei:

1. Jarduera guztiak bigarren mailako biktimizazioa arintze-
ra bideratuta daude
2. Biktima diren haur eta nerabe guztiak tratamendua jaso
ahal izatea, kaltea al bait azkarren konpon dadin.

Une honetarako eta oraingo egoeran jarduteko jarraibide egokienak zeintzuk diren teknikoki azaldu eta gero, **Arartekoak** euskal administrazio publiko eskudunei **gomen-
datu die**:

- ✓ Ezar ditzatela “Euskadin haur eta nerabeen sexu abusu eta esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideak” izenburuko agirian jasotako neurriak (idazki honi erantsi dizkiogu), beren sistemari edo erakundeari dagozkien alderdi zehatzetan.
- ✓ Jarduteko jarraibide horiek zabal ditzatela beraien eskumen-eremuetan, eta beharrezko ekintza eta aldaketa guztiak abiaraz ditzatela jarduteko eta prozedurazko eredu bakoitza bertan ezarritako neurrietara egokitu dadin eta neurri horiek barnera ditzan.
- ✓ Nork bere alorreko profesionalen prestakuntza eta espezializazioa susta ditzala, baita praktikak arlo pribatuan egiten dituztenenak ere. Gainera, ziurtatu beharko da prestakuntza tekniko espezializatu hori giza eskubideen, haurren eta generoaren ikuspegitik begiraturuta gauzaten dela.

- ✓ Garatutako neurrien bilakaera azter dezatela eta horiek ebalua ditzatela, beharrezkotzat jotzen diren zuzentzeko eta hobetzeko elementuak erantsiz eta Arartekoari horien berri emanez, jarduteko jarraibide horiek eguneratu ditzan, hala badagokio.

Gainera, gizarte-zerbitzuen sistemari eskatzen dio arreta osoko eredu baten alde egiteko lehen urrats gisa, beharrezko zerbitzuak abian jar ditzala sexu-abusua jasan duten haur eta nerabe guztiei tratamendu publikoa jasotzeko aukera bermatzeko, beraien familien babes-ahalmenari buruzko edozein balorazio baztertuta.

Era berean, justizia-administrazioa osatzen duten erakundeei eskatzen die ahalbidetu dezatela gomendio orokor honetan bildu diren jarduteko jarraibideak beraien prozedurazko jardueretan erabiltzea.

Proposamen honek puri-purian dauden beste ekimen batzuen helburu eta orientabide berberak ditu. Adibidez, haurrak eta nerabeak indarkeriaren kontra osorik babesteko lege organikoaren proiektua, zeina Gorte Nagusiak izapidetzen ari baitira. Gauza bera esan daiteke *haurren etxe* edo *Barnahus* ereduaz; euskal administrazioak horren alde apustu egin du, Eusko Jaur-laritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko egungo arduradunak XII. Legealdiaren hasieran aurkeztu dituen jarduera-lerro nagusiak kontuan hartzen baditugu.

Proposatu diren jarduteko jarraibideek jada egin dute bide jakin bat: finkatu dituzte partekatutako helburuak eta orientabideak, lortu dituzte adostasunak eta erabaki dituzte lan koordinatua egiteko moduak. Horregatik guztiagatik, pentsa liteke jarduteko jarraibide hauek lehen urratsa direla norabide egokian, tresna egiazkoa eta egungoa dela, erantzun hobeago eta asmo handiagoko baten zerbitzuan, hori lortzeko lanean jarraitu behar baita.

ERAKUNDE-ADIERAZPENAK

Erakunde-adierazpenen bidez, Arartekoa jendaurrean agertu izan da zenbait efemerideren ospakizuna dela-eta euskal gizarteari mezu bat helarazteko interesgarriak diren zenbait gairen inguruan hitz egiten. Jarraian, 2021ean zehar egindako erakunde-adierazpen nagusien laburpen bat jaso dugu.



MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Zenbat eta genero-berdintasun handiagoa, orduan eta demokrazia sendoagoa, giza eskubi-deen babes hobea eta ongizate handiagoa herritar guztientzat

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak berekin dakar emakumeen ikusgarritasuna, ahalduntzea eta eremu publiko guztietan parte hartzea; berekin dakar aukera berbera izatea baliabide ekonomikoak eskuratzeko, denbora izateko eta lan guztiaren balioa aitortua izateko, pertsonen zaintza- eta artatze-lana ere bai, hori ez baita ordaintzen, etxe barruan egiten delako. Lan horretan uzten dute beren denbora, arreta, jakituria eta ahalegina milioika emakumek, inolako ordainik jaso gabe.

Izurriak irakatsi digu emakumeek zaintzako lehen lerroan zenbat eman duten besteen alde, eta erakutsi digu dedikazio hori zein garrantzitsua den izurriaren eragin arintzeko.

Arartekoak ziur dago emakumeen eta gizonen, gizarte zibilaren eta erakundearen artean behar bezala eraturako aliantzek bakarrik desagerraraz ditzaketela desberdintasun eta oztopo horiek, norberak uste osoa izanik eta esku hartuz, estrategiak partekatuz eta ahalik eta pertsona gehienengana partaidetza ahalbidetuz. Horregatik, bere iritziz, agenda publiko bat egin behar da, berdintasunaren aldeko ibilbide horretan taxututako neurrietan sakontzeaz gain, pedagogiaren garrantzia ere kontuan hartuko duena, genero-berdintasunaren mezua ahalik eta pertsona gehienengana irits dadin, aurrerapen humanitario, politiko, ekonomiko eta sozialaren mezu gisa.



EKAINAK 5 INGURUMENAREN MUNDUKO EGUNA

Planetaren aldaketa bultzatuko duen birsorkuntza

2021ean, planeta osoko ekosistemen nariadura prebenitu, geldiarazi eta lehengoratzeko lanean jarri du arreta. Aukeratu den goiburuak (“berrirudikatu, berreskuratu, lehengoratu”) Nazio Batuen hamarkada baten hasiera adierazten du, zein lan egingo baita kontinente eta ozeano guztietan ekosistemen nariadura lehengoratzeko. Horrela, pobrezia desagerrarazi nahi da, klima-aldaketaren kontra borrokatu, eta espezieen desagertze masiboari aurrea hartu.

Horren gainean, Arartekoa bat dator Nazio Batuen hausnarketa honekin: ez da nariaduraren aurrean geldi geratzeko garaia. Ezin dugu suntsitutakoa aldatu, baina, aldiz, hazia erein dezakegu basoak zuhaitzez berritzeko, gure hiriak berdatzeko eta gure lorategiak birlandatzeko.

Azken hamarkadetan ezin eztabai-datzeko aurrerapenak egiten ari dira Euskadiko herri askotako hiri-inguruko ingurumena hobetzeko. Gure ekosistemak babestu eta lehengoratzeko lan horretan, Arartekoak nabarmendu nahi du zer-nolako balioa duen herritarrak, banaka edo elkarrekin bidez, ingurumen arloan egiten ari diren kontzientziazio- eta salaketa-lanak.

Egun honetan onartu behar dugu dagoeneko sortu dela naturarekin adiskidetu daitezkeen pertsonen belaunaldia, klima-hondamendia, kutsaduraren eta biodibertsitatea galtzearen aurka. **#BerreskuratzekoBelaunaldiak** bultzatuko du jada hasita dagoen aldaketa. Beraien garaia da. Gure garaia da.





URTARRILAK 21 BITARTEKARITZAREN EUROPAKO EGUNA

Bitartekaritzak gatazkan dauden aldeei eta erkidegoari protagonismoa ematen die edonolako arazoak konpontzeko orduan, eta horiek konpontzen laguntzen du.

Egun honetan, Arartekoari iruditzen zaio Europa osoan tresnak landu behar direla gizarteak justizia administrazioan parte hartu ahal izan dezan, judizio barruko eta judizioz kanpoko formulen bitartez. Formula horiek alderdien arteko elkarriketa eta topaketak ahalbidetu eta bultzatuko dituzte, baita erkidegoak gatazkak konpontzen modu eraginkorren parte hartzea ere.

Orobat, bitartekaritzako zerbitzu publikoak eragile juridikoekin elkarlanean aritzeko bidea ezartzea komeni da, alderdien ezin besterenduzko eskubideen bermatzaileak baitira.

Arartekoak azpimarratu du bitartekaritzak gatazkan dauden alderdiei eta erkidegoari protagonismoa ematen diela edonolako arazoak konpontzeko orduan, eta horiek konpontzen laguntzen dutela, ez legez bakarrik, baizik eta baita moraliki eta emozionaliki.

Gatazkak konpontzen esku hartzen duen gure gizartean auzi ugari dagoenez gero, bitartekaritza landu behar da beste arlo batzuetan ere, esaterako, hezkuntza arloan, hainbat balio sustatzeko: herritarren aditzeko ahalmena, enpatia eta erantzukizuna. Hala, aurrera egin ahal izango da gizarte parte hartzaileago eta demokratikoagoa lortzeko bidean, liskarrak modu baketsuan konpontzeko bideak erabiliz.



MAIATZAK 9 EUROPA REN EGUNA

Gazteriaren garaia

Mutiko, neskato, nerabe eta gazteak dira Euskadiren eta Europaren etorkizuna. Hori hala izan arren, aurten izurriak erakutsi digu beraien ahotsak gutxiegi entzuten direla. Biztanleria osoak nozitu ditu izurriaren ondorioak, baina modu desberdinean eragin dio pertsona bakoitzari eta talde bakoitzari, beren ezaugarrien arabera. Mutiko, neskato, nerabe eta gazteek mugatua ikusi dute hezkuntzarako, aisiarako eta jolaserako sarbidea; uko egin behar izan diete gizarteko eta familiako harremanei, askotan zapuztuta ikusi dituzte beraien ikasketa-proiektuak, prestakuntzakoak, bidaiatzekoak, nahiz eta, horiei esker, gaztaroari uztarturik doan esploratzeko eta ezagutzeko gogo berezia garatu ahal izango zuten; zenbaitetan, gabezia materialaren eta indarkeriaren egoera are larriagoak pairatu dituzte.

Begi-bistan geratu da, baita Europan ere, beharrezkoa dela gazteen ahotsak entzutea, diotena aintzat hartzea eta beraien parte hartzeko gune bat ematea.



AZAROAK 21-28 JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN MUNDUKO ASTEAj

Justizia errestauratiboari esker, aktibo sozial gisa gizartera daitezke erasotzaile edo biktimagileak eta edonolako delituak edo gatazkak kaltetutako pertsona edo biktima, eta horiek onera egin dezaten konprometitzen du gizarte.

Azaroko hirugarren astean, justizia errestauratiboaren astea (*Restorative Justice Week*) ospatzen da mundu osoan, 2021ean goiburua hau duela: *Protect and empower the person harmed* (Babestu eta ahalundu pertsona kaltetua).

Arartekoak aste honetan nabarmendu nahi du justizia errestauratiboari esker, aktibo sozial gisa gizartera daitezkeela erasotzaile edo biktimagilea eta edonolako delituak edo gatazkak kaltetutako pertsona edo biktima, eta horiek arduraz eta modu barneratzaile eta demokratikoan onera egin dezaten konprometitzen duela gizarte.

Justizia errestauratiboa zigor arloko justiziaren ikuspegi berri bat da; horren bidez, gatazkaren protagonismoa itzultzen zaie alderdiei eta gizarteari. Kontrastaturiko arrakasta izan duenez gero, gizarte osoari edo horren zati bati eragiten dioten beste gatazka batzuetara hedatu da: familia-gatazkak (banantzeak eta dibortzioak), kultura anitzekoak, auzokoak eta erkidegokoak, e.a.

ARGITALPENAK ETA TXOSTENAK

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA IZATEA ETA EGIAZTATZEA.

Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (FIO) Emakumeen defentsa-erakundearen sarearen Europako eskualdeak egindako topaketan, gogoeta egin zuten erakundeek gaur egun genero-indarkeriari ematen dioten erantzunaz, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak babesteko ditugun sistemen ahulgunez eta indargunez ere bai. Arartekoak, beste defentsa-erakunde batzuekin batera funtsezko bi alderdi eztabaidatu zituzten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak babesteko: biktima izatea egiaztatzea eta genero-indarkeriaren kontzeptua homogeneizatzea, Espainiako eta Portugalgo lurraldeetan biktima horiek jaso ditzaketen prestazioei eta zerbitzuei dagokienez. Gainera, alderdi horien gainean duten ikuspegia adierazi dute. Azterlan honetan ondorioak jasotzen dira, baita antzemandako arazoak hobetzeko gomendio labur batzuk ere.

LAGUNDU GABEKO HAUR ETA NERABEAK BABESTEKO ZERBITZUAK EUROPAN



Txostena Arartekoak egindako azterlana da, Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuaren (IOI) Europako sailak hala eskatuta. Bertan, etorkizun handiko hainbat jarduera aukeratu eta bildu dira, bakarrik dauden haur eta nerabe atzerritarrak babestearen arloan.

Ondorio nagusien artean, hauxe azpimarra daiteke: egiaztatu denez, bakarrik dauden haur eta nerabe atzerritarrek arreta hobea jasotzen dute haur edo nerabe izatea migrazioarekin lotutako egoera administratiboaren gainetik lehenesten den estatu eta eskualdeetan (Euskadi, kasu), erregularizazio administratiboaren mende jartzen den tokietan baino. Gainera, ahalegin handiagoa egin behar da laguntzarik gabeko haur eta nerabeek arlo guztietan **adituak izateko duten eskubidea** bermatzeko.

Estatuek gehiago ahalegindu behar dute bakarrik dauden haur eta nerabeekin zuzenean nahiz zeharka harrera arloan diharduten **profesional guztiek beharrezko prestakuntza egokia jaso dezaten**.

Eragile garrantzitsuen artean **informazioa partekatu eta bidaltzeko prozesuak** arazo praktiko handiak sortzen ditu oraindik ere, eremu nazionalen nahiz nazioartean, eta, beraz, **erronka garrantzitsua izaten jarraitzen du**. Herriaren defentsa-erakundeek eta haurren eskubideak babesteko erakundeek esku hartu behar izateak akats bat dagoela berresten du, zuzendu beharrekoa, eta nabarmentzen du estatuek elkarri isilpeko informazioa bizkor eta eraginkortasunez bidaltzeko eta elkarlanean aritzeko moduak aurkitu behar dituztela.

Ahalegin handiagoa egin behar da harrera-herrialdera iristeko unean tutoretza eta/edo legezko ordezkaritza azkar esleituko direla bermatzeko eta bakarrik dauden haurren gaineko prozedurak lehenesteko.

Arazo psikologikoak dituzten eta/edo indarkeriaren, abusuen eta abarren biktima izan diren laguntzarik gabeko haurrek **buru-osasuneko** eta errehabilitazio **zerbitzuak** jasoko dituztela **bermatzen** saiatu behar dute, behin eta berriz, estatuek.

Laguntza-egiturak sortu behar dira **tutorentzat**, horiei laguntza, aholkuak, ezagupenak eta gaitasunak emateko, beharrezkoa denean.

Estatuen politiketan, funtsezko helburua bilakatu behar du bakarrik dauden haurren egoera administratiboa erregularizatzeak, adin txikikoak diren (eta artatuak izaten ari diren) bitartean, baita adinez nagusi izatean ere.

Azkenik, aztertu beharko litzateke ea bakarrik dauden haurrek, **adinez nagusi izatean**, jaso ahal izan ditzaketen gizarte-politikak (hezkuntza, osasun-arreta, zerbitzu ekonomiko eta sozialak, e.a.), baita ere banakako laguntzarako eta jarraipenerako neurriak.

FAMILIA-ERREFERENTERIK EZ DUTEN GAZTE MIGRATZAILEAK EUSKADIN. DIAGNOSTIKOA ETA JARDUTEKO PROPOSAMENAK



Azterlan honen jatorrian, herritarrek eta gizarte-erakundeek azken urteotan egindako kexen azterketa dago. Kexa horietan salatzen zuten gazte horiek gizarte-kalteberatasun egoeran bizi direla eta era askotako arazoak dituztela (udal erroldan izena emateko, hemen bizi eta lan egiteko baimena lortu eta berritzeko, oinarrizko beharrak asetzeko, emantzipazio programetan parte hartzeko, prestakuntza ibilbideetarako sarbidea izateko); are gehiago, kasurik larrienetan, “kalean” bizi direla.

Azterlanean jasotzen diren gomendio batzuk:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekiko elkarrizketan aurrera egitea, lanerako sarbidea eta erregularizazio administratiboa errazteko asmoz.
- Euskal gazteei beren emantzipazio-prozesuetan laguntzeko politiken eta etorkinak gizarteratzeko eta horiek gizartean parte hartzeko politiken esparruan, **estrategia oso bat** eratzea, familia-erreferenterik ez duten 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileentzat.
- **Gizarte-zerbitzuen** euskal sistemari dagokion erantzunaz hausnartzen hasia, eta beste politika publiko batzuekiko duen eginkizuna nahiz barne-artikulazioa argitzea.
- **Lanbide-prestakuntzarako** hasitako prozesuak sendotzea eta horien arrakasta eragozten duten elementuak ebaluatzea.

- Gizartean baztertuta dauden pertsonentzako **gune soziosanitarioa** garatzen sakontzea eta, zehazki, kaleko eriondo- eta psikiatria-programak estaltzea.
- **Sentsibilizatzeko** ekintza zehatzak (zurrumurruekin kontrakoak, e.a.) bultzatzea, baita berariazko prestakuntzak ere, gazte horiekiko portaera diskriminatzaileei, tratu-desberdintasunari eta gizarte-estigmatizazioari dagokienez.
- Gizon-emakumeen salerosketa edo edonolako esplotazioa **antzemateko** tresnak hobetzea.

Arartekoaren iritziz, euskal gizarteak, balioak dituen gizarte ireki eta anitz gisa definitzen denez gero, ezin dio uko egin bere etorkizuna pertsona gazte, gogotsu eta erkidego honi beraien onena emateko irrikaz daudenekin partekatzeari. Geroa gizon-emakume guztion artean eraikitzen dugu, inor baztertu gabe.

COVID-19AREN PANDEMIAK EUSKADIKO ADINEKOENTZAKO EGOITZA-ZENTROETAN IZAN DUEN ERAGINA



Arartekoak, azterlan honetan, zentroetan gertatzen diren kutsatzeen faktore erabakigarrienak aztertzen ditu, aldi horretatik eratorritako ikaskuntzak nabarmentzen ditu eta egoiliarrek, arduradunek eta langileek pertsona guztien osasuna eta eskubideak zaintzeko egindako ahalegin handia aitortzen du.

Azterturiko errealitatearen inguruko datu nagusiak:

Martxoko lehenengo asteetatik 2021eko urtarrilaren 10era arte, COVID-19 kasuren bat izan dute Euskadiko adinekoentzako egoitza-zentroen % 66,7k —hau da, 299 zentrotik 199—, eta COVID-19a diagnostikatuta zuten 938 erabiltzaile hil dira epealdi horretan.

- Hiru egoitza-zentrotatik bik gutxienez COVID-19aren kasu bat izan dute, eta infektatutako egoiliarrek % 25 inguru izan dira.
- Adinekoentzako egoitzetan bizi diren pertsonak kutsatutako guztien % 5 dira.
- 2021eko urtarrilaren 10era arte, zentro horiek % 47,5ek eta ordura arte kasuren bat izan zutenen % 70,9k pandemiarekin lotutako heriotzaren bat izan du.
- Pandemia kontrolatzeko, erantzun orokorra eman behar izan da, maila guztietan, osasun-sistemen eta gizarte-zerbitzuen eta egoitza-zentroen arteko lankidetzak artikulatzeko; izan ere, horiek izan dute birusaren transmisioa geldiarazteko eta egoiliarren eta langileen segurtasuna babesteko neurriak eta beharrezko bitartekoak ezartzeko azken erantzukizuna.
- Zentroetako langileen eta erabiltzaileen nahiz haien ingurune hurbileneko pertsonen arteko elkarlana ere ezinbestekoa izan da hartutako prebentzio-neurriak behar bezala ezartzeko.

Ikasitako zenbait lezio, Azterlanean jasotzen direnak:

- Zentroa dagoen osasun-eremuko pandemiaren eraginak azaltzen du kutsatzeko arriskuaren zati bat.
- Zentroetan sartzeko muga pandemia kontrolatzeko beste faktore garrantzitsua.
- Heriotza-arriskua nagusiki egoiliarren ezaugarri pertsonalekin lotzen da, eta zentroarekin loturiko faktoreen garrantzia oso mugatua da.
- Kutsatzeko arriskuan dauden zentroen ezaugarrien eragina. Zentroak, beren ezaugarriak eta harturiko prebentzio-neurriak oso garrantzitsuak izan ziren erabiltzaileen artean COVID-19arekin kutsatzeko arriskua azaltzeko.
- Egoitza-zentroak zentro bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako prebentzio-planez eta infekzio-arriskuez hornitu behar dira, babes handiagoa bermatzeko.
- Premiazkoa da egoiliar guztien banakako egoeraren kalitatea eta erregistroa zein zentro bakoitzeko laguntza-prozesuak ebaluatzeko sistemak

izatea; egoera pertsonalean gertatzen diren aldaketak identifikatzeaz gain, jasotako arretak beren bizi-kalitatean duen eragina ere identifikatu ahal izateko.

- Beharrezkoa da zentroen eredu arkitektoniko eta funtzionalaren inguruan hausnartzea, kutsatzeko arriskuan duten eragina dela eta.
- Langileen ordezkapenak egiteko prozedurak kutsatze-mailan duen eragina aztertu behar da.

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ETA ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIAREN INGURUAN, 2020. URTEAN ZEHAZ



Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketa dela eta, agiri honetan jasota daude Arartekoak 2020. urtean Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari (lehen Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) egin dizkion gomendio eta iradokizunak –Arartekoaren web orrian argitaratuak–.

Guztira, 19 gomendio eta iradokizun dira. Horrez gain, bi gomendio orokor egin dira. Bestalde, prozedura sinplifikatu bidez 49 espediente bukatu dira. Prozedura hori erabiltzen da litis-a Arartekoaren ebazpenen xede izan duten espedienteetan eta erakunde bietako langileen artean eztabaidatuak izan direnetan, Lanbidek Arartekoaren oharrak eta iritziak onartu ez arren.

Desadostasunak sortzen dituzten espediente horiek honakoen ingurukoak izan dira: ohiz kanpoko diru-sarrerara gisa mailegu bat kontuan hartzea, jatorri herrialdeko ondasunen ziurtagiri bat aurkezteko betekizuna, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun izateari utzi zioten pertsonen zorra betearazpen bidera bidaltzea, zorra zatikatzea, EAetik jakinarazi gabe egindako irteerak edo diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzea etxebizitza eraginkorra ez egiaztatzearen eskatutako poliziaren txostenaren arabera.

HERRITARRENGANDIK HURBILAGO EGONGO DEN ADMINISTRAZIORANTZ AURRERA EGITEKO TRESNAK



EHUren XXXX. edizioko uda ikastaroen barruan, Arartekoak ikastaro bat antolatu zuen Donostian, izenburu honekin: “Herritarrengandik hurbilago egongo den administraziorantz aurrera egiteko tresnak”.

Inaugurazioan, Manuel Lezertuak hizpide izan zituen pandemiaren hasieratik Arartekoan jasotako kekek eta kontsultak, administrazioak herritarrei arreta ematean izandako arazoei buruzkoak. Besteak beste: bizirauteko prestazio ekonomikoak eskatzeko administrazioa joateko ezintasuna, inprimakiak betetzeko gailu elektronikoen falta, prestazio ekonomikoaren izapideak, ABEEEn izapideak eta hainbat izapide administratibo edo erabaki judicial.

Ikasturte honen helburua zen hausnartzea administrazio publikoek egin edo indartu behar dituzten ekin-tzen inguruan, administrazio horietara jo behar edo nahi duten pertsonetikiko gertutasuna sustatzeko.

Administrazioaren eta gizartearen beraren digitalizazioa esponenzialki ari da aurrera egiten, eta are gehiago egingo du datozen hilabeteetan, COVID-19ari aurre egiteko onartutako neurrien ondorioz.

Egiaz, COVID-19aren krisiak agerian jarri du, dudarik gabe, bitarteko telematikoen protagonismoa eta horien garrantzia itxialdi orokorrean, baina administrazio publikoek aldi honetan izan dituen disfuntzioak ere nabarmendu ditu.

Horren ondorioz, Arartekoak, 4/2020 Gomendio Orokorren bitartez, euskal administrazio publiko guztiei berariaz eskatu die beharrezko neurriak indartu ditzatela, behar bezala funtziona dezaten ez bakarrik arreta telematikoak, baizik eta baita ere telefono bidezkoak eta aurrez aurrekoak, herritarrek egoki ar-tatzeko.

ENOC BATZARRA

Europako ENOC (European Network of Ombudspersons for Children) sareko Haurren Defentsarako Erakundeek eta Komisarioek (Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Bulegoa) **#ENOC2021Conference** egin zuten. 2021ean, formatu hibridoan, Atenasera bertaratu ziren pertsonak eta online ekitaldia jarraitzen zutenek euren esperientziak eta hausnarketak partekatuko zituzten bi egunetan, COVID-19aren eta haur eta nerabeen eskubideen inguruan: etorkizunerako ikaskuntzak.

Konferentzia honek garrantzi handia ematen dio haurren ahotsari berari, ENYA (European Network of Young Advisors) proiektuaren esparruan egindako gomendioen bidez. Gure ordezkari Elisabethek osasun eskubidearen inguruan egindako lana aurkeztuko zuten.



ARARTEKOAK GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA OSPATZEN DU



Abenduaren 10ean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren urtemuga ospatzen dela eta, Arartekoak Bilbon hitzaldi bat ematera gonbidatu zuen **Régis Brillat**, Europako Gutun Sozialerako Europako Kontseiluko idazkari exekutibo ohia. Ekitaldia Arartekoak antolatu zuen, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuarekin eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusiarekin elkarlanean.

Europako Gutun Sozial Berrikusia lan eta gizarte arloetako giza eskubideen nazioarteko itunik osoena da, eta 2021eko uztailean jarri zen indarrean Estatuan, berretsia izan ondoren.

Gutuna berrikustean, eskubide sozial berriak erantsi dira, hala nola lanetik justifikaziorik gabe egotzia ez izateko eskubidea, kalte-ordain egokia jasotzekoa, gizarte-bazterketaren kontra babestua izatekoa edo etxebizitza izateko eskubidea.

Gutunean printzipio orokor bat ere ezartzen da diskriminaziorik ez jasateko, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna izateko eta lanean sexu-jazarpena prebenitzeko. Gainera, hobeto babesten ditu desgaituak.

TXOSTEN BERRIA ATERA DU EUROPAR BATASUNEN OINARRIZKO ESKUBIDEEN AGENTZIAK

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) atera zuen txosten berri batean, (EB) 2017/541 Zuzentaraua aztertu du, izan ere, horixe da Zuzenbide penaleko tresna nagusia EBko terrorismoaren kontrako borrokaren arloan.

Zenbait espezialistaren iritzian oinarrituta, txostenean adierazten da terrorismoaren kontrako borrokarako nola izan daitezkeen onuragarriak argitasun juridiko handiagoa, orientazio praktikoa eta berme sendoagoak.

Terrorismo-ekintzak arrisku larria dira pertsonen bizitzarako eta segurtasunerako, eta estatuentzat erronka handia segurtasun arloan. Aldi berean, terrorismoaren arriskuari aurre egiteko legeek eta politikek larriki murriztu ditzakete, zuzenean edo zeharka, oinarritzko eskubide eta askatasunak, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren txosten berriaren arabera.

Txosten hori egiteko, Agentziak laguntza eskatu zion Arartekoari; beraz, EBko zazpi estatu kidetan Agentziak elkarrizketatu dituen 107 pertsona eta erakundeen artean dago Arartekoa.

Agentziak terrorismo-mota ezberdinetan eskarmen-tua duten herrialdeak aukeratu zituen, eta, horien barruan, terrorismoaren kontrako borrokan esperientzia handia duten pertsonak eta erakundeak: epaileak, fiskalak, akademikoak, GKEak eta Arartekoa bezalako kontrol erakundeak.

ARARTEKOAK NABARMENDU DU GENERO-INDARKERIAREN KONTRAKO BORROKAK EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO DIMENTSIOA HARTU DUELA

Azaroaren 25aren arrastotan, Arartekoak berriro adierazi zuen etengabe konprometituta dagoela emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurka borrokatzen, izan ere, gizarteko gaitz horrek halako egiturazko dimentsioa dauka, non botere publikoek etengabe heldu behar baitiote gai horri, politika publiko guztietan eragiten duen lehenetsun gisa, betiere emakumeen eta gizonen berdintasunaren zeharkako ikuspegitik begiratuta.

Arartekoaren konpromiso hori hainbat arlotan azaltzen da: adibidez, euskal administrazio publikoek genero-indarkeriaren arloan egindako jarduerekin zerikusia duten kexetan eta kontsultetan emakumei ematen zaien arreta; emakume eta neskatu guztien giza eskubideak defendatzeko jarrera irmoa bultzatzeko adierazpen publikoak; edo matxismoaren adierazpen kriminal horren aurka emakumeak hobeto babesteko egiten diren zenbait forotan parte hartzea; eta, bereziki, euskal erakunde guztiak biltzen dituen erakunde-arteko akordioan aktiboki esku hartzea, modu koordinatuan aurrera egiteko gaitz hori bukarazi nahi duten politika publikoetan.

Arartekoak herritarrak ere sentsibilizatu nahi ditu genero-indarkeriaren kontrako borroka **Europar eta nazioartean hartu duen dimentsioaren inguruan**. Istanbulgo Hitzarmena da, gaur egun, berori sinatu duten estatu guztiek eta euskal administrazio publikoek erabili behar duten beharrezko gida.

ARARTEKOAK ESKATU DU ALDEZ AURRETIK ERAGINAREN EBALUAZIOAK EGIN DAITEZELA HAURREN ESKUBIDEEI DAGOZKIEN ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUETAN

Arartekoak, Kataluniako Síndic de Greugesekin eta Andaluziako Adingabeen Defendatzailearekin batera, iritzia emateko adierazpen bat argitaratu zuen, Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sareak (ENOC) bultzatuta, gai honi buruz: “Haurren eskubideen gaineko eragina ebaluatzea” (CRIA, *Child Rights Impact Assessment*. Estatuari, agintari nazionalari, eskualdeko, Europako, nazioarteko eta agintari eskudun guztiei eskatu diete haurren eskubideen gaineko ebaluazio-prozesuak ezar ditzatela eta eskubide horietan duten eragina azter dezatela.

Prozesu horiek bete daitezzen errazteko, ENOCek **Gidaliburu** bat ere argitaratu du. Bertan, ebaluazio egokia egiteko jarraibideak agertzen dira, legeek, aurrekontu-erabakiek, politikek eta onartzen den beste edozein neurri umee eta gazteengan izango luketen eragina aztertu ahal izateko. Agiri horretan azaltzen da zer den CRIA kontzeptua eta zein den ebaluazioa egiteko arduraduna.

Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sarea (ENOC) 1997an sortu zen eta, gaur egun, Europako 34 herrialdeetako haur eta nerabeen eskubideak babesteko 43 erakunde hartzen ditu bere baitan. Honatx bere helburu nagusiak:

- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ezar dadin sustatzea
- Taldeko ekintzari sostengua ematea, Europako herrialdeetako politika publikoetan haur eta nerabeen eskubideak kontuan har daitezzen
- Informazioa, ikuspegiak eta estrategiak partekatzea
- Haur eta nerabeentzat eraginkorrak diren bulego burujabeak gara daitezzen bultzatzea.

JARDUNALDIA: “PERTSONAK ARDATZ DITUEN EUSKAL ESPETXE-EREDUA”

Espetxe arloko gizarte-erakundearen sareak (ESEN: Espetxe Sarea Euskadi Nafarroa) jardunaldi bat egin zuen Gasteizen, pertsonak ardatz dituen euskal espetxe-ereduaren gainean. Sare hori Espetxe Inguruko Erakundearen Estatuko Sarean (ROSEP) sartuta dago eta bere baitan hartzen ditu zigor eta espetxe eremuan nolabait esku hartzen duten gizarte-erakunde

guztiak. Zigor eta espetxe arloa tratatzeko orduan, ardatz hartzea proposatzen du pertsona bera eskubideen jabe denez eta birgizarteratzeko dituen aukerak.

Manuel Lezertuak adierazi zuen Arartekoak beti betebehartzat jo duela egungo zigor-sistemari buruzko gogoeta bultzatzea, legeak erakunde honi eman dion zereginetako bat (giza eskubideen aldeko kultura zabaltzea) betetzeko.

Jardunaldi horretan Roberto Morenok ere parte hartu zuen, Arartekoko justizia eta espetxeratuaren arloko koordinatzailea baita.



EITB MARATOIOA

Hogeita bi urtez jarraian, gizartea sentsibilizatzeko eta informazioa zabaltzeko kanpaina abian jarri zuen EITBk. *Alzheimerre bihotzeko gaixotasun bat da* lelopean, 2021eko EITB Maratoiak Alzheimerre izan zuen ardatz, Euskadin 40.000 pertsona eta familia baino gehiagori eragiten dien gaixotasuna.

Kanpainaren amaieran, EITB Maratoia izeneko jardunaldia ospatu zen. Bertan, ekarpenak egiteko deiak egiten dituzten herritarrei arreta ematen zaie, *dei-zentro* batean. Inés Ibáñez de Maeztu arartekoaren ondokoak jardunaldi horretan parte hartu zuen modu aktiboan, telefonoa hartu baitzuen dei-zentro horretan.

Kanpainaren helburua gizartea sentzibilizatzea da. EITBk bat egiten du hainbat elkarte eta erakunderen ahaleginarekin, eta dirua biltzen saiatuko zen, gure gizartean horren hedatuta dagoen gaixotasun horren ikerketa-proiektuak baliabidez hornitzeko. Ekarpenak ikerkuntzan lagunduko dute, BIOEF- Ikerkuntza Sanitariarako Euskal fundazioaren bidez.



GIZARTE ERAGILEEKIKO HARREMANA



Balio eta giza eskubideen kultura sustatzeko eginkizuna baliatuz, Arartekoak hainbat jarduera egin ditu urtean zehar. 2021ean, Arartekoaren ordezkartzan Inés Ibáñez de Maeztuk parte hartu du, besteak beste, gizarte erakundeek antolatutako hainbat jardueratan modu aktiboan; esku hartu du hainbat forotan, giza eskubideei lotutako gaiet buruz; eta Arartekoaren helburuei hertsiki lotutako ekitaldi instituzionaletan ere parte hartu du.



IHOBEK INGURUMEN ARLOKO KONTRATAZIO JASANGARRIAREN EREDUTZAT JARRI DU ARARTEKOAREN KONTRATAZIO PLEGU BAT

Ihobe sozietate publikoa Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzari atxikita dago eta Euskadin ingurumena hobetzea bultzatzen du, administrazio publikoekin, enpresekin eta herritarrekin elkarlanean. Sozietate horrek ingurumen arloko kontratazio jasangarriaren eredutzat jarri du Arartekoaren mezularitza-zerbitzuaren kontratazio plegua.

Plegu horretan adierazten da, besteak beste, mezularitza-zerbitzua egitean ahalik eta gutxien kaltetuko dela ingurumena. Gainera, zehazten duenez, bidali beharreko agiriak eta gauzak jada paketatua egongo direnez gero, garraiatu beharreko materialean arriskurik ez badago, mezularitza enpresak hitzematzen du ez dituela berriz paketatuko, horrek hondakin gehiago sortzen baititu helmugan.

Arartekoak aintzat hartzen du, halaber, Gasteizko hiri-zerbitzuen barruan (erakundearen Gasteizko bulegoan bakarrik egin daiteke zerbitzu hori) bizikleta erabiltzeko aukerarik eskaintzen ote den mezularitza-zerbitzu horiek egiteko, ingurumen arloan kontzientziazio handiagoa izan dezagun.



GASTEIZTXO PROGRAMARAKO LANKIDETZA

Arartekoak haurrei eta nerabeei dagokienez ezarrita dituen jarduketa-ildoetako bat honako hau da: haien eskubideak hedatzea eta **giza-eskubide guzti-ko errespetu-kultura** zabaltzea gazteen artean. Horregatik, Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jarraitzen dugu, **Gasteiztxo Albistegia** egiteko orduan. Hainbat ikastetxetako ikasleek Ararteko erakundearen jarduerari buruzko datu eta informazioak biltzen dituzte, ondoren irratiz zein telebista-programa bat edo aldizkari bat prestatzeko.



ARARTEKOKO NERABEEN KONTSEILUKO NESKA-MUTILEK GOGOETA EGIN DUTE COVID-19AK BEREN ESKUBIDEETAN DUEN ERAGINAZ

“Hilabete hauetan beldurra, estutasuna eta kezka sentitu ditugu, herritar guztiek bezala, elkartasunezko ekintzetan lagundu dugu, gure ikasketei jarraipena ematen ahalegindu gara une bakoitzean adierazi diguten moduan, eta, hala ere, nerabeok sentitzen dugu ez gaituztela aintzat hartzen. Ez gara existitzen, non eta ez den gure arduragabekeriagatik kutsatzeak areagotu egiten direla leporatzeko”.

Ikus daitekeenez, argi eta garbi mintzatu ziren Arartekoko Nerabeen Kontseiluko neska-mutillak, Sarrion (Araba) elkartuta, COVID-19ak eta hori geldiarazteko hartu diren neurriek haur eta nerabeen eskubideetan izan duten eraginaz hausnartzeko asmoz.

Lan handi, aberats eta oso emankorra eginez, Kontseiluaren bileran parte hartu zuten 20 neska-mutilek hiru eskubide aukeratu zituzten (hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea eta “sozializatze” eskubidea) izurriak indarririk handienaz jo dituen eskubidetzat, eta zeharkako ikuspegi gisa erantsi zuten beraiek erabat garatzeko duten eskubidea.

Bestek beraiei buruz kontatutakoa, sentitu dutena, pentsatzen dutena aztertu zuten, helburu jakin batekin: hori oinarritzat hartuta, gure mandatariei erabakiak hartzerakoan baloratu beharko lituzketen zenbait neurri eta jarduera proposatzeko.



Haur eta

NERABEENTZAKO BULEGOA

- ▶ **Kexa kopurua:** Berariaz haurren eta nerabeen presentzia edo tartean egotea adierazi duten kexei dagokienez, 2021ean, guztira 454 espediente izan dira, hau da, Arartekoan aurkeztutako kasu guztien %16,4. Jasotako kexen artean, kexa bakarra aurkeztu du adingabe batek. Beste behin, Arartekoari bere ikuspuntuak helaraztea erabaki zuen Bizkai-ko udalerrri bateko haurren partaidetzarako organo baten kezkak eta hausnarketak helarazi ditu.
- ▶ **Arlo materialak:** gaiei dagokienez, umeen bizi baldintza materialekin lotutako kontuak erreklamazioen ia erdietan azaldu dira (%47,4) eta ia hiru laurdenera iristen dira hezkuntza sistemari buruzkoak gehituz gero (%28,0). Gainerako %25a honako hauek osatzen dituzte: familiei laguntzeko politikak (%7,4), babesgabe dauden umeei laguntzeko gizarte zerbitzuek (%6,3), osasun sistemak (%5,8) eta beste arlo batzuk (oso kasu gutxi dira: justizia, segurtasuna, kutsadura akustikoa, atzeritartasuna, eta abar).
- ▶ **Bizi maila egokia izateko eskubidea:** maiatzean aurkeztu ziren 2020ko Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen inkestaren emaitzak. Horien artean nabarmentzekoa da haurren pobrezia gora egin duela (%10,7 da), nahiz eta Euskadin, oro har, pobrezia tasa orokorrek behera egin duten (%6,1 izan zen 2018an; %5,6, aldiz, 2020an). Hainbat azterlanetan egiaztatu ahal izan denez, prekarietate egoerek epe labur, ertain eta luzeko eragina dute haurren bizi baldintzetan, beren bizi itxaropenetan eta garatu eta integratzeko aukeretan. Gure gizartean, gaur egun ere, gizarte oinordetzak eragin oso handia dauka pertsona bakoitzaren aukeretan. Hori horrela, egoera hori aldatzeko nolabait esku hartzen ez bada, pobrezia gurasoetatik haurretara igaroko da, jarauntsi txar baten antzera, eta horrek haurren eta nerabeen eskubideak larri kaltetuko ditu.
- ▶ **Heziketarako eskubidea:** 2021ean, jarraitutasun urtea izan da, eta COVID-19aren pandemiak era-





gindako osasun krisiak eragina izan du, berriz ere eta maila nabarmenean, gainera, hezkuntza jasotzeko eskubidea baliatzean. Zenbait ekimenen bidez, eztabaidetan parte hartze zabala sustatzeko ahalegina egin da etorkizuneko Hezkuntza Legearen oinarriak ezartze aldera. Gaietako batzuk bereziki kezagarriak dira Ararteko erakundearentzat, izan ere, behin eta berriz eragiten dituzte kexak eta jarduteko eskaerak. Besteak beste, eskola segregazioa da horietako bat. Kontuan izan beharreko beste gai bat da hezkuntza sisteman hizkuntza koofizialek duten tratamendua eta hizkuntza ereduaren sistemak behar duen berrikusketa.

- ▶ **Indarkeria eta tratu txar mota guztietatik babestua izateko eskubidea:** kexa kopurua eta kexen gaiak ez dira asko aldatu aurreko urteekin alderatuta: desadostasunak daude seme-alaben babesgabetasun aitorenarekin, babesgabetasun balorazio prozesuaren garapenarekin eta familientzako laguntzak etetearekin; babesgabetasuna baloratzeko espediente bat irekitzeak ziurgabetasuna eragiten du; desadostasuna dago adopzio ondorengo jarraipenak derrigorrak izatearekin. Jokaera arazo larriak dituzten nerabeentzako programa intentsiboetan emandako arretari dagokionez, Arartekoak 2021ean ofiziozko jarduketara bat egin du. Horren bidez ondorioztatu du garrantzitsua dela hausnaritzea zentro horiek duten zereginari buruz gazteen beharrei erantzun behar dien sistema baten barruan. Familia erreferenterik ez duten atzerritarrei ematen zaien arretarekin lotutako jarduketetan behin eta berriz errepikatzen den gaia izan da emantzipazioa, edo zehatzago esanda, gazte horiek adingabetasunetik bitzita heldu autonomo batera "igarotzean" dituzten zailtasunak. Halaber, nabarmendu behar dira haurren eta nerabeen sexu abusu eta sexu esplozazio kasuetan jarduteko jarraibideak, betiere haien eskubideen ikuspegia kontuan izanda.
- ▶ **Familia izateko eskubidea:** familiei laguntzeko politikei buruzko gaiak etengabe mantentzen dira urteetan behar, eta, izatez, 2021ean ere errepikatu dira: sarritan informazio osoa ez izatearen ondorioz, zailtasunak seme-alabengatiko laguntza ekonomikoak izapidetzeko, zeinak subjektiboak izanik era automatizatuan eman ahalko liritekeen; laneko eta familia-ko bizitzen kontziliaziorako neurri hobeak eta asmo handiagokoak eskatzea, bereziki kontuan hartuko dituztenak familia zaugarrien oztipoak; autonomia

legediak zaugarritzat jotako familien barruan sartzen diren egoeren definiziorik eza eta, hortaz, estatus hori baliatu ezina beste eremu batzuetan edo beste politika batzuen laguntza partikularrak jasotzeko ezintasuna; legedi zaharkitua eta arrotza askotariko familien egoera berrientzat.

- ▶ **Osasunerako eskubidea:** arlo horretan jasotako kexa eta kontsulta gehienak osasun egoerarekin eta COVID-19aren pandemia dela eta herritarrei ezarritako betebeharrak eta murrizketekin lotuta daude. Azpimarratzekoak dira adingabeek maskara derrigorrez erabili beharra hezkuntza esparruan eta Euskadin COVID pasaportea ezarri izana eta ez txertatzea erabaki zuten nerabeek izandako oztipo guztiak, hala nola ekipamendu publikoetako kirol, kultura eta aisialdi jardueretan parte hartzeko. Horrez gain, zenbait erreklamazio jaso genituen aurretiaz programatutako hitzorduak ezeztatu zituztelako, bai arreta espezializatuko kontsultak, bai proba diagnostikoak. Horiek guztiak ezeztatu egin ziren osasun administrazioak pandemiari aurre egiteko ezarritako antolamendu neurriak zirela eta.
- ▶ **Umeen eskubideak justiziaren arloan:** Arartekoaren gomendioen oinarri izan diren bi erreklamazioetan aipatzen zituzten bi neskatok (kasu bietan delitu sexualen biktimak) izandako zailtasunak egindako salaketaren testuinguruan eman zitzaielako arreta. Lehenengo kasuan guardiako abokatuak zabarkeriazko tratua eman zuen; eta bigarren kasuan Ertzainetxe batean jasotako tratua ez zen egokia izan adingabearen zaugarritasun egoera berezia kontuan hartuta.
- ▶ **Jolasteko, atsedeen hartzeko eta jarduera artistikoak eta kirol jarduerak egiteko eskubideak:** eskola kirolari buruzko ohiko erreklamazioez gain, 2021ean jaso ditugun beste batzuetan azaldu zuten ez zeudela ados COVID-19aren testuinguruan kirol jarduerak antolatu eta garatzeko ezarritako oztipo handiekin edo jarduera horiek bertan behera utzi izanarekin. Umeen ikuspegia txertatzea eta indarkeriaren aurka umeak guztiz babesteko lege berria jasotako manuak aplikatzea beharrezkoa da, eta halabeharrez egin behar da arauak ume eta nerabeen eskubideetan sortzen duen inpaktuaren ebaluazioa, eta gai horiek guztiak ere erakunde honek gogorarazi zituen EAEko jarduera fisikoaren eta kirolaren lege proiektuaren izapidetzean.

ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

Arartekora jo dezakezu

- ▶ Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- ▶ Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- ▶ Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

Zer da Arartekoa?

- ▶ Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- ▶ Erakunde independentea da.
- ▶ Dohain eskaintzen den zerbitzua.

Zer egiten du Arartekoak?

- ▶ Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- ▶ Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- ▶ Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- ▶ Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- ▶ Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

Noiz jo Arartekora?

- ▶ Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- ▶ Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- ▶ Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan

Noiz ez jo Arartekora?

- ▶ Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- ▶ Gaia auzitara eraman denean.

Nola egin kexak?

- ▶ Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopia eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia emanez.
- ▶ Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz).
- ▶ Internet bidez: www.ararteko.eus
- ▶ Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

Nora joan?

Harrera zuzeneko bulegoak

Arabari

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxe: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate, 19 - 1.
20005 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88
Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu



Deskargatu
2021 urteko
memoriaren
bertsio digitala

